

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bettan Hoqui

*Zalgize-
Doneztebe,
Zuberoa (1991)*

Aurkibidea



Biografia



1991ko barantailaren (otsailaren) 7an jaio zen, Donapaleun. Zalgize-Donetzteben bizi izan da beti, eta bertakoak ditu gurasoak ere. Hiru senidetan zaharrena da; bi ahizpa gazteago ditu. Laboraria da lanbidez. [Joana](#) arrebarekin batera elkarrizketatu genuen, gurasoen etxean, eta hizkuntza kontuez, maskaradaz, pastoralaz, inguruko gazteen aisialdiaz eta beste hainbat konturi buruz hitz egin genuen. Aipagarria da Hoqui anaia-arrbek bultzatuta jokatu zuela hegoaldeko dantza talde batek lehen aldiz maskarada Zuberoan. Harreman hori nola egin zuten kontatzen du, arrebarekin batera.

Zintak

ZDO-004

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2014-10-25
- **Iraupena:** 112 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Pariseko kusinekin frantsesez

- **Erref:** ZDO-004/006
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:03:26. **Bukatu:** 00:04:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Euskaraz aritzeko joera dute Hoquitarrek, aurrean euskaraz ez dakienik egokitzen bada ere, baina, euskara ulertzen ez duen hura elkarrizketari zuzenki loturik ez dela juzkatzen dutenetan, bistan da. Hala ere, Pariseko

kusinak etxera datozkienetan, frantsesez gehixeago aritzeko indar egin behar izaten dute, Euskal Herriko beste hainbat etxetan gertatu ohi den bezalaxe.

2. Euskaraz noiz eta norekin

- **Erref:** ZDO-004/008
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:04:55. **Bukatu:** 00:07:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Bettan euskaraz mintzatu ohi da lanean, laborari gehienek, gurasoen adinekoak izaki, euskaraz baitakite Zalgizen eta inguruetan. Aisialdian, ordea, frantsesez mintzatzeko joera dute gazte gehienek, beti izaten baita tartean euskara entelegatzen ez duenik. Dantza-eskola, ordea, eremu euskalduna dute Zalgizen, euskaraz irakasten baita.

3. "Gasna saltzen"

- **Erref:** ZDO-004/016
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:13:47. **Bukatu:** 00:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Bettan gasna saltzen ari zen batean hegoaldeko bikote gazte bat gerturatu zitzaion. Joana ere tartean zen egun horretan, eta bikotearekin txantxetan ari zirela "sortu" zuten "gasna saltzen" erramoldea, dragatu adierazteko. Orain lagunarte hurbilean erabiltzen dute, txantxetan. Ez dakigu erramoldeak biderik egingo ote duen, baina...

4. Hainbat goitizen

- **Erref:** ZDO-004/020
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:18:03. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Sortetxearen izena goitizen bilakatzeko joera bada Zalgizen eta inguruan. Gazteen artean, izenak laburtzeko joera ere bada. Eta ezizenak ezartzeko joera, aldiz, adin batetik gorako jendearen artean usatzen da gehien: artozanko, badalan...

5. Hitz larriak

- **Erref:** ZDO-004/021
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:20:36. **Bukatu:** 00:22:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Hitz larri, birao edo irainak baliatu behar izatekotan, frantseserako joera handiago du Joanak, Bettanek baino. Hala ere, Bettanek ere usatzen ditu, euskaraz, frantsesez, eta baita gazteleraz ere; azken hauek, aitari entzunak.

6. Euskaldunen eta erdaldunen arteko gertaera barregarriak

- **Erref:** ZDO-004/023
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:22:39. **Bukatu:** 00:25:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

7. Hika edo zuka aritzeko ohituraz

- **Erref:** ZDO-004/026
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:27:12. **Bukatu:** 00:30:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hoqui anai-arrebek hika egiten diote aitari. Ohitura hori ez da euren inguruan batere zabaldua, eta eurek badakite izango dela joera hori begi onez ikusiko ez duenik ere, baina aita ez die sekula kontrakorik egin dezaten esan, eta ohitura hori dute etxean. Joanak eta ahizpak hika egiten diote Bettani ere, baina Bettanek, ordea, arrebei zuka egiten die. Tratamenduen inguruko joera nagusiak zein diren aipatzen dituzte, halaber, pasarte honetan. Joanak, esate baterako, nahi luke gertuko neskekin noka jardun, baina haren esanetan, ez du behar beste ezagupen.

8. Xiberuan haurrek hika, txikitatik

- **Erref:** ZDO-004/028
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:30:50. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Xiberuan zuka zein hika transmititzen zaie hurrei, txikitatik. Helduek itsusi atzematen dute hurrek ohiturazko tratamenduak erabili ezean.

9. Hika eta zuka eskutik beti

- **Erref:** ZDO-004/031
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:36:55. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Xiberuan hika eta zuka eskutik doaz. Joanarentzat, esaterako, pentsaezina da anaiari zuka egitea, ez balitzateke zuzena. Hurrei batera irakasten zaizkie hika eta zuka Xiberuan. Gau eskoletan, aldiz, lehenik zuka irakatsi ohi da, eta ondoren hika.

10. Hika eta zuka, etxean zein ikastolan

- **Erref:** ZDO-004/032
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:39:45. **Bukatu:** 00:41:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Joana eta Bettan Donaixtiko ikastolan ikasiak dira, Nafarroa Beherean, eta han irakasle askok zuka egiten zieten. Hezkuntza soilik zuka jasotzen duenak nekez ikasten omen du gero hikaz xuxen mintzatzen. Xiberuko haur eskoletarako behar beste trebatutako irakasle atxematen ere ez omen da erraza.

11. Hika eta zuka ikastolan ikas daitezke

- **Erref:** ZDO-004/034
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:41:50. **Bukatu:** 00:42:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Ikastolan aski ongi ikas daiteke hika eta zuka mintzatzen, baina ezinbesteko baldintza da gero, era berean, euskarari eustea eskolatik kanpo ere, lagunartean, egunerokoan...

12. Euskara batua, itsusia baina praktikoa

- **Erref:** ZDO-004/036
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:42:37. **Bukatu:** 00:44:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Xiberuan ez dute izan Bettanek eta Joanak harreman handirik euskara batuarekin, kolegioan ikasten aritutako denbora tarteak salbu. Ez dute batua sobera maite, baina aitortzen diote praktikotasunik. Hala ere, Bettan euskaldun bakoitza bere euskalkian mintzatzearen aldekoa da, hartara, denok ikasten dugu bestearenetik pitzin bat.

13. Santutxuarrekin harremanetan

- **Erref:** ZDO-004/037
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:44:09. **Bukatu:** 00:44:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Bettanek eta Joanak hartuemanak dute Santutxuko Gaztedi Dantza Taldeko hainbat kiderekin, eta elkar ulertzeko izaten dituzten gora-beherez mintzo zaizkigu.

14. Jende zaharrenekin

- **Erref:** ZDO-004/041
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:46:42. **Bukatu:** 00:48:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Bettan konturatuta dago gazteak gero eta euskara pobregoa darabilela, orohar; zaharrenekin mintzatzerakoan, ordea, bestela dira kontuak. Nafarroara joaten denetan ohartzen da horretaz Bettan.

15. Manexak

- **Erref:** ZDO-004/044

- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:50:15. **Bukatu:** 00:50:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Xiberutarrez mintzatzen ez diren euskaldunei esaten diete manexak. Ez dute gutxiesteko esaten.

16. Kasualitatea eta santutxuarrak

- **Erref:** ZDO-004/046
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:51:37. **Bukatu:** 00:54:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Santutxuko Gaztedi dantza taldeko partaide batzuk xiberuan zebiltzan 2013an, maskarada ikustera joanak. Kasualitatez, Bettan eta Joana, maskarada jokatu berriak zirela, autoan hartu zituzten santutxuarrek. Kasualitatezko topaketa horretatik elkarrizketa bat sortu zen lehenik, eta egitasmo bat eta adiskidantza etorri ziren gero. Santutxuarrek maskarada jokatu zuten urte hartan Bilbon, eta Bettan eta Joana hura ikustera joan ziren. Segidan, maskarada bat xiberuan jokatu nahi ote zuten proposatu zieten Gaztedikoei, eta hauek, noski, onartu egin zuten proposamena; proposamena eta erronka, ordura arte inongo manexek ez baitzuen maskarada bat jokatu xiberuan.

17. Zalgiztarrak konbentzitu beharra

- **Erref:** ZDO-004/047
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:54:02. **Bukatu:** 00:55:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

<p>Zalgiztar guztiek ez zuten ongi hartu dantza talde bizkaitar batek maskarada Xiberun jokatzeko proposamena (2013ko kontuak dira); beldur ziren, artean ez baitzen sekula halakorik gertatu Xiberun.</p>

18. Maskarada ez da deus ere herritarrik gabe

- **Erref:** ZDO-004/048
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:55:38. **Bukatu:** 00:57:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Azkenean, santutxuarrek maskarada jokatu ahal izan zuten Zalgizen, eta herritarrek harrera ezin hobia egin zieten. Herritarrek barrikadak egin zituzten, maskaradan ohikoa den gisan, eta santutxuarrek errespetu handiz jokatu zuten, arazorik batere ez zen izan. Egun ederra igaro zuten guztiek, baita gaua ere.

19. Maskarada zertan datzan

- **Erref:** ZDO-004/050
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:58:28. **Bukatu:** 00:59:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Bettan Hoquik azaltzen du maskarada zertan datzan.

20. Santutxuko "beltzak"

- **Erref:** ZDO-004/051
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:59:55. **Bukatu:** 01:02:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Santutxuko Gaztedi Dantza Taldeak maskarada jokatu zuen Zalgizen, 2013. urteko neguan, eta haien "beltzen" jarreraren berri ematen dute Bettanek eta Joanak. Bizkaitarrak izanagatik ere, xiberutarrez prestatu zuten predikua.

21. Maskarada eta pastoralak urguilu eta elkartasun iturri

- **Erref:** ZDO-004/056
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:05:17. **Bukatu:** 01:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Elkartasun eta urguilu iturri dira xiberun maskarada eta pastoralak. Garai batean, herrietan jende gehiago bizi zelarik, hautatutako jendeak hartzen zuen parte, pastorean, behintzat. Egun hori aldatu egin da. Egun herri guztiak hartzen du parte.</p>

22. Hizkuntzaren pisua maskaradan eta pastoralean

- **Erref:** ZDO-004/059
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:07:56. **Bukatu:** 01:10:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Euskararen presentzia nabarmena da maskaradan zein pastoralean, baina Bettanek eta Joanak azpimarratu egiten dute handiak edo helduak zenbateraino diren maskaradan txikienen eredu, baita hizkuntza kontuetan ere.

23. Zalgize inguruko herrien berezitasunak

- **Erref:** ZDO-004/061
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 01:10:40. **Bukatu:** 01:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Bettanek Zalgize inguruko herrien berri ematen du, umorez. Esate baterako, "Barkoxe beti haboroixe" esaera. Joanak kultur ikuspegitik pisu berezia duten herriak aipatzen ditu.

24. Xiberu "safari"

- **Erref:** ZDO-004/065
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:16:50. **Bukatu:** 01:18:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Kanpotarrek Xiberuaz duten ikuspegiak mintzo dira Bettan eta Joana, umorez.

25. Lehen hitza euskaraz

- **Erref:** ZDO-004/066
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 01:18:38. **Bukatu:** 01:19:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bettanek laket du Hegoaldera joatea, euskaraz nanahi eta nornahirekin egiteko ohitura zabalduago dagoela baitio.

26. Arrotzarekin erdaraz

- **Erref:** ZDO-004/069
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 01:21:18. **Bukatu:** 01:24:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Xiberun kosta egiten da lehen hitza euskaraz ematen, eta parekoarekin konfiantzarik ez duen hiztun askok frantsesez mintzatzeko ohitura omen du, elkarren arteko distantziak mantentze aldera, hiztun biak euskaldunak izanik ere. Joera horiek, ordea, gutxitzen ari omen dira, geroz eta gutxiago baitira Xiberun euskara dakiten gazteak.

27. Frantsesez hasi eta euskaraz bukatu

- **Erref:** ZDO-004/070
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:24:41. **Bukatu:** 01:26:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Joanak eta Bettanek kontatzen dute lagun batekin bizi izan zuten hizkuntza bilakaera.

28. Xiberun beti kantuan

- **Erref:** ZDO-004/077
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:37:52. **Bukatu:** 01:40:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Oso kantu zalea da Xiberua. Jendea etxean trebatzen da, baina baita bestetan, kalean, tabernen zein elizan ere. Kantu zaharren ezagutza, ordea, jaisten ari dela sumatzen du Joanak.

29. Kultur kontsumoa

- **Erref:** ZDO-004/079
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:40:46. **Bukatu:** 01:43:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Kulturari dagokionez, musika entzutea da Bettanek eta Joanak gehien maite

dutena. Entzuten dituzte hegoaldeko taldeak ere, baina pastoral zaharretako kanten zintak entzutea ere maite dute dute zinez. Barkoxeko partoral zahar bat da haien kuttuna.

30. Pastoraletako kanthoreak

- **Erref:** ZDO-004/081
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:43:24. **Bukatu:** 01:44:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Pastoraletako khantoreei buruz ari dira Joana eta Bettan, eta sujetari buruzko jakingarririk ere eskaintzen dute.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com